

# NORANTZA

## JON BETANZOS

Bizkaiko MANEXAK ELKARTEKO kidea

### «Euskal kultura Bizkaiko bazter guztietara zabaldu nahi dugu»

Bizkaiko Manexak elkarte duela hiruzpalau urte sortu zen, euskal kulturari, egun bizi duen egoera testimoniala bukaraziz, Bizkaian dagokion tokia ematea helburu.

#### AMAIA MUNDINANO

Jon Betanzos Bizkaiko Manexak elkarte kidea da, eta harekin izan dugun solasean elkartearen helburua eta asmoak azaldu dizkigu. Euskal kultura ardatz nagusi izanik, bizkaitarrei esparru bat eskaini nahi dietela adierazi digu elkarte kide honek.

tas herri mugimendua arduratzea egokiena zela pentsatu genuen.

#### Zein da elkartearen helburua? Non kokatzen dituzue zuen lanildoak?

Gure helburua euskal kultura Bizkaiko bazter guztietara zabaltzea da, behar eta merezi duen lekua emanaz. Lanildoek dagokie-

nez, memento honetan, gure egin-behar nagusia Udaberriko Jaia edo ditrozguna lantzea da. Bilbon eta Bizkaian dauden euskal kulturaren adierazpen ezberdinak kaleratzea du helburu ekimen horrek. Aurten, Bilbon ospatu dugu Udaberriko Jaia, baina aurrerantzean Bizkaiko herri eta auzo guztietan ospatzeko asmoa dugu. Jaien ezaugarriek dagokienez, euskal kultura izango dute guztiek oinarri. Gero, herri zein auzo bakoitzak, bere potentzialitate eta gogoen arabera, ahal duena antolatuko du. Udaberriko jai haiek maiztaren bigarren hamabostaldian izango dira eta, hauen bitartez, Bizkaiko txoko guztietan euskal kulturaren adierazpen ez-

berdinak kaleratuko dira, herriz herri eta auzoz auzo. Hauetan arazoren edo beharren bat badute, gure laguntza osoa izango dutela ez dute zalantzarik izan behar.

#### Zein da euskal kulturaz egiten duzuen definizioa?

Guk euskal kulturaren definizioa edo kontzeptua bere zentzurik zabalenean jasotzen dugu, hau da, herri honen eguneroko bizitzan parte hartzen duten arlo guztiak biltzen dituen. Euskal kulturaren kontzeptuari ez diogu inongo mugarik jartzen eta euskal kulturari bertsoariak, trikitilariak... bakarrik dauden ideia bukatzea nahi dugu. Izan ere, euskal kultura hori baino gehiago da eta askoz ere arlo gehiago biltzen ditu bere baitan.

#### Nori zuzentzen diozue proiektua?

Antolatuta eta antolatzen ditugun ekimenak gizarte osoari zuzentzen dizkiogu. Dena den, sortu eta landu behar direnak Bizkaian euskal sentsibilitatea duten talde sozial zein pertsonet zuzenduak izango dira. Izan ere, bizkaitarrei euskal kulturaren alde artizeko esparru bat eskaintzen ari gaizakiela pentsatzen dugu. Gainera, orain artean egindakoarekin jende gehiago guregana hurbiltzea lortu dugu, eta azpimarratzekoa da, besteak beste, Bizkaiko Diputazio Kultura Sailak emandako laguntza eta egiten dugun honi buruz erakutsitako jarrera ona. Guztion artean pixkanaka gure helburuak eta asmoak beteaz joango gara. Horretarako, noski, bizkaitar guztion parte-hartzea ezinbestekoa da.



Luis Jauregiartzo

#### Zerk bultzatu zintuzten elkarte sortzera?

Elkarte duela hiruzpalau urte sortu genuen. Oinarria ideia edo helburu zehatz bat izan zen. Izan ere, orduan, Soñitako ikastolaren proiektuaren alde Bilbotik gure aportazio xumea egitea erabaki genuen. Hainbat ekimen eraman genituen aurrera eta garai horretan hasi ginen euskal kulturak Bilbon zuen presentzia hausnartzen. Euskal kulturari zein toki txikia uzten zitzaien konturatu ginen. Bilboren irudia mundu guztira zabaltzen ari da pixkanaka. Irudi hau kosmopolita eta modernoa da, baina ez herri kulturari eta gure hizkuntzari lotua. Hori dela eta, gure hiriburuan zein herrialdean behar duen tokia har dezan, elkarte sortzea erabaki genuen. Eta, beste taldeek zein instituzioek horren alde ezer egiteko asmoak ez zutela ikustean, horre-

#### ZIRTOKA



Txillardegí

C. T. P.

Gaur arte inor gutxiak zekikien sigla hirukun horrek zer adierazten duen: "Communauté de Travail des Pyrénées".

Hots, egun hauetantxe (Ekainaren 7-8an presek) bere Biltzarre Osoa burutuko du Pauen.

Zortzi parteida dira CTP'an: Estatu Askatu txiki bat (Andorra); hiru frantses Eskualde (Aquitaine, Midi eta Languedoc); espainiar Errejiotako (Aragoi); eta hiru Hernalde Autonomiko (Kataluña Printzerria, He-go Nafarroa, eta Baskongadak).

Josep Lluís Llimona katalanak piztu du eskandaloa. Barzelonako Generalitatearen izenean proposamen bat aurkeztu baitu; Europatik etorritako diru-laguntzen banaketa-erakoa, zortzi lurralde horiei ahalmen handiagoak aitortzekin.

Frantses Errepublikak Bakar eta Zatiagaitza arriskutan somaturik (!) ikaratu egin diru auzoko ultra-hexagonalak. Eta beraien izenean arunt zakarki mintzatu zaizkio Alain Rousset pirinotiar President errejionalarik.

Proiektua, «arriskugarria», «onartezina» eta «zaitkatzaila» dela sinetsita, erotik erazi eta errausteko eskatu diote.

Guruzada anti-separatista horren buruzagitza nor harkuko eto? Chirac-en muniten batek? Le Pen-er jarraitzaileek? Chevenement damutuak? Ez horixe! Sylvano Marian izeneko biarnotarra agertu baitzaigu Frantzia Batuen guruzatu nagusi.

Hots, Marian jaun hori komunista ofiziala da, Frantziako PC-ko kide eta hautetsia.

«Les rapports frontaliers – argitu du – doivent se faire dans le respect rigoureux de la souveraineté des Etats». Edereto esana.

Bilerak ezer gutxi eskarri digu. Jakina. Baina aurki hautatuko omen du Mayor Orejak biarnes «ezkerta» hau bere konfiantzako kontseilarik.

## AITZINDARIAK

### MARTIN OPITZ

1 6 2 0



ED OI HEROI ZANKARRA,  
FUNDIKA ITZAK  
URDE MARRAIN USTEL HORIEK...

Schlag doch  
du starker Heldt  
die scheuszlichen Marranen...

...GURE ZORIGAITZEAN  
BEREN KANPAK ETA ODOLEZKO BANDERAK  
GETXANIA LORTION EKARRI BAITUTUZE

so leyder ihre Zeit und blutgefärbten Fahnen  
auch jetzt  
in Teutschland bracht...

RHEIN GUREATEN HEGIETARAINO  
EKARRI ERE, ZEINEK  
BERE ARNO IZPIRITUAREN URDE,  
ISKILUZ HARMATZEN BAITU BERE  
LASTERRA...

... an unseren schönen Rhein,  
der Waffen trägt muez  
vor seinen guten Wein.

OI KAPITAIN HAUNDIA,  
JAKINATAZ:  
HIRE KUMITRE OLDARTUKO DENIK  
ERROIZTU EGIMEN DELA;  
ETA ZUTIK BALIRAU,  
BIZIA BERE DIKEK ZIGOR!  
JAINKOAK ESPAINOLAK RHEINETIK FUERA DITZANATUZE

Du großer Capitain,  
mache kundt, dasz der,  
der Dir zugegen strebt, stürzt, oder bleibt  
er ja, ihm selbst zur Strafe lebt!

A O I E K O X